

"Axenarrio"
Jules Renard
euskaratzailea: Itziar Otegi
Alberdania / Elkar, 2006

Ilea gorria eta azala oreztaz betea ditu Axenariok. Itxurak ez dizkio gauzak batere errazten, "Axenarioren oroigarri-bilduma" kapituluan irakur daitekeenez: bere sudurra sator-zuloaren antzekoa da, beti izaten ditu ogi-papurak belarrietan. Zurrupaka aritzeaz gain, hankokerra ere bada eta hain trakets ibiltzen da ezen konkorduna baitirudi. Kraka urdinxka batek hartzen dio lepoa, lepokoa daramala iruditzeraino. Gainera, usain itsusia du. Horrelakoxea da Axenarrio, Jules Renard idazle frantziarraren izen bereko liburuko protagonista.

Orain arteko hau gutxi balitz, senitartekoak ere ez zaizkio makalak egokitu mutikoari. Anaia nagusi Felix eta arreba Ernestina, bera laguntzeko baino bere kontura barre egiteko jaioak direla dirudi. Lepic jaunak, aitak, asko maite omen du baina ez dio inoiz kasurik egiten, beti denbora-pasa lanaren aitzakian. Eta, okerretan okerrena, ama, Lepic andrea. Semea maite ez duen ama krudel eta inbidiatsua. Mari Nanette zaharrak hala aitortzen dio Axenarriori liburuko memento batean: "pena ematen didazu, ume, iruditzen baitzait bizialdi latza ematen ari zaizkizula".

Horiek horrela, Axenarrio izeneko mutikoaren inguruko gorabeheraz arituko zaigu Renard liburu honetan: haurtzaroaz, familia harremanez, bizitzak eskaintzen dizkion irakaspenez. Itziar Otegi itzultzaileak prestatutako sarrera-oharrek argitzen diguten bezala, bi ekarpen egin zituen Axenariok literatura unibertsalaren historiarako: batetik, ume zintzoaren figura hankaz gora jarri eta haurraren irudia eta trataera "guztiz eraberritu" zituen. Eta bestetik, garai hartarako nobela batean berritzaile zen egitura bat aurkeztu zuen, nobela tradizionalarekiko "erabateko haustura" suposatu zuena.

Renardek, 1894an, seme aingeru eta ama maitagarriaren arteko erlazio idiliko oro hautsiz, seme eta ama doilorraren figurak sortu zituen. Garai hartan figura berritzaileak izan zirenak egun ez zaizkigu hain berriak egiten, ohituak gaude horrelakoetara. Baina liburuko pertsonaiak oso ongi daude karakterizatuak eta horrek joko handia ematen dio narrazioari. Axenariok, amak eta aitak osatzen duten hiruki horretatik sortzen diren tirabirek uzten dituzte liburuko unerik bikainenak. Pasarte labur bat besterik ez kontakizunaren tonua harrapatzeko: "Lepic andrea: Axenarrio, erantzun ezazu galdetzen dizutenean. Axenarrio: Bbai, abbatto. Lepic Andrea: Behin baino gehiagotan esan dizut umeek ez dutela inoiz hitz egin behar ahoa betea dutela".

Egiturari dagokionez, liburua istorio labur ugariz osatua dagoela esan behar. Korapilo bati jarraitu ordez, istorio txiki asko bata bestearen segidan jarri zituen Renardek, guztiek ere Axenarrio pertsonaia dutelarik protagonista eta erdigune. Ondorioz, ipuin bildumatik gertuago dagoen egitura eman zion, literaturaren historia finkatu dutenen arabera, le roman éclaté edo zatiz osatutako nobela sortuz. Hainbat pasartetan, gainera, antzerki lanen egitura hartzen du narrazioak: elkarrizketa hutsak, parentesi arteko testuinguru eta guzti. Aurreko paragrafoan idatzitako pasarte edota "Antzerki-kolpea" kapitulua horren adibide.

Jules Renardek bere "Journal" egunkarian aitortu zuenez, haurtzaroko oroitzapenetan oinarritua dago Axenarrio. Lehentxeago ere esan dugu: adituen arabera, umearen figura eta egitura berritzaileak dira azpimarratzekoak. Gaur egungo irakurlearentzat, ordea, idazle frantziarrak muturrera eramandako pertsonaien izaeren arteko talkatik sortzen dira liburu honetako pasarterik bikainenak, egiturak egitura.